

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

Diru laguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia: Gipuzkoako Lurralde Historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jardueretarako.

«Diputatuen Kontseiluak, 2021eko apirilaren 13ko bileran, ondoko erabakia hartu zuen:

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 3.1 eta 2.d artikuluetan xedatutakoaren arabera, herri-administrazioek ingurumen-politika egokiak sustatu behar dituzte, pertsona guztiak ingurumen osasungarria erabiltzeko eta gozatzeko eskubidea izan dezaten, eta, besteak beste, ingurumena babesteko, hondatzeari aurrea hartzeko eta, kaltetua izan den lekuan lekuan, lehengoratzeko.

16/2020 Foru Dekretuak, urriaren 20koak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, hainbat funtzio eta eginkizun esleitu dizkio Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari, eta horien artean dago, ingurumenari eta naturari dagokienez, degradatuta dauden eremuak lehengoratzeko eta hobetzeko proiektuak sustatu eta garatzea.

Diputatuen Kontseiluak, 2019ko azaroaren 12ko bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa onetsi zuen. Bertan, 50. helburu estrategikoa gisa jasotzen da «Lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia sustatzea», eta xede gisa ezartzen da azpiegitura berdeen sare bat sustatzea eta lurraldea desfragmentatzea.

Horrela, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, bere «Erresilientzia eta azpiegitura berdeak» izeneko 140 programaren barruan, proiektu ugari egin ditu azken urteotan, elementuen ingurumen kalitatearen ikuspegitik egoera txarrean edo desegokian zeuden lurraldeko hainbat eremu biziberritu, lehengoratu edo balioan jartzeko.

Bestalde, martxoaren 26ko 15/2018 Foru Aginduaren bidez, Gipuzkoan Klima Aldaketari Aurre Egiteko 2050 Estrategia –Gipuzkoa Klima 2050– onetsi zen, zeinak Aldundiak sustatu eta gauzatu behar dituen helburu, jarduketara lerro eta ekintza zehatzak ezartzen dituen, betiere klima aldaketaren eraginak murrizteko eta klima aldaketara egokitzeko Europa mailan ezarrita dauden helburuak Gipuzkoako lurralde esparruan sustatu eta betetzeko.

Halaber, 3. xedearen barruan (lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia gehitzea), Gipuzkoa Klima 2050 Estrategiak bi jarduketara lerro ezarri ditu helburu hauekin: Gipuzkoako azpiegitura berdeen sare bat sustatzea eta lurraldea desfragmentatzea; hondatutako eremuak lehengoratzeko eta naturalizatzea; bereriaz jasota ingurumena lehengoratzeko eta naturalizatzea proiektuak sustatu eta gauzatu behar direla; eta hiri inguruak bi-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

Bases reguladoras y convocatoria 2021 de las subvenciones en especie para la ejecución de proyectos y actuaciones de recuperación y restauración de áreas degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes y de la resiliencia del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

«El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de fecha 13 de abril de 2021, adoptó el siguiente acuerdo:

De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 3.1 y 2.d de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, las Administraciones Públicas deben promover políticas ambientalmente adecuadas para garantizar a todas las personas el derecho al uso y disfrute de un medio ambiente saludable, de tal forma que, entre otros fines, posibiliten proteger el medio ambiente, prevenir su deterioro y restaurarlo donde haya sido dañado.

El Decreto Foral 16/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas ha encomendado a la Dirección General de Medio Ambiente, entre otras funciones y tareas, el impulso y desarrollo de proyectos de restauración y mejora de áreas ambiental y naturalísticamente degradadas.

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 12 de noviembre de 2019, aprobó el Plan Estratégico 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el que se recoge como objetivo estratégico n.º 50 «Impulsar la eficiencia y resiliencia del territorio», estableciéndose como meta la promoción de una red de infraestructuras verdes y desfragmentación del territorio.

De esta forma, la Dirección General de Medio Ambiente, dentro de su programa 140 «Resiliencia e Infraestructuras Verdes», ha llevado a cabo en los últimos años diferentes proyectos de regeneración, restauración o puesta en valor de algunas zonas del territorio que se encontraban en unas condiciones bajas o inadecuadas desde el punto de vista de la calidad ambiental de los elementos que las conformaban.

Por otra parte, mediante Orden Foral n.º 15/2018, de 26 de marzo, se aprobó la Estrategia Guipuzcoana de Lucha contra el Cambio Climático 2050 –Gipuzkoa Klima 2050–, que establece una serie de metas, líneas de actuación y acciones concretas que se deben de impulsar y ejecutar de cara a conseguir los objetivos establecidos a nivel europeo en materia de mitigación y adaptación al cambio climático dentro del ámbito territorial de Gipuzkoa.

En su meta 3 (Incrementar la eficiencia y la resiliencia del territorio), la «Estrategia Gipuzkoa Klima 2050» ha establecido dos líneas de actuación que tienen como objetivo promover una red de infraestructura verde de Gipuzkoa y desfragmentar el territorio, así como llevar a cabo la restauración de áreas degradadas y su naturalización, recogiendo específicamente la necesidad de promover y ejecutar proyectos de restauración y natu-

ziberritzeko, espazioak naturalizatzeko eta berdeguneak sortzeko udal proiektuak eta jarduerak babestea, horretarako ezarritako tokiko eta eskualdeko estrategien barruan. Izan ere, horrela lortu nahi da CO2 xurgatzeko gaitasuna areagotzea, eta, horrez gain, degradatutako edo kaltetutako prozesu ekologikoak berrezartzea, haien ingurumen kalitatea hobetzea, eta beste zerbitzu ekosistemiko batzuk eskaintzeko gaitasuna handitzea (naturarekin berriz bat egitea, erregulazio hidrikoa sustatzea, biodibertsitatea kontserbatzea, paisaia hobetzea, eta abar).

Aurreko guztiarekin bat etorritik, 2021eko urtarrilaren 19ko txosten teknikoak justifikatu eta zehaztu egiten ditu aurreikusten den dirulaguntza lerroaren alderdi teknikoak; beraz, Gipuzkoako eremu degradatuak lehengoratzeko eta biziberritzeko asmoz, jarduketak eta proiektuak sustatuko dira elkarlanean lurraldeko udalekin, mankomunitateekin, eta udal eta eskualdeetako merkataritza-sozietateekin, eta, horrela, modu publikoan eta elkarrekiko norgehiagokaren prozeduraz, hautatu eta gauzatu ahal izango dira aipatutako helburuak betetzeko egokitzat jotzen diren jarduketak eta proiektuak.

Dirulaguntza lerro hau, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onestea.

Dirulaguntza hori ez da estatuko laguntza Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikuluan ezartzen den zentzuan, ez baititu betetzen bertan aurreikusitako baldintzak; izan ere, dirulaguntza horrek ez dakar onurarik enpresa baten zatitza eta ez die enpresa edo ekoizpen jakin batzuei laguntzen edo mesede egiten beste batzuen kaltetan. Hortaz, salbuetsita dago aipatutako Itunaren 108.3 artikulua ezarritako jakinarazpen prozeduratik.

Horrenbestez, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta gaiaz hitz egin ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

Lehenengo. Onartzea gauzako dirulaguntzak esleitzeko oinarri arautzaileak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jardueretarako, I eranskinean zehazten direnak.

Bigarren. Onartzea gauzako dirulaguntzak esleitzeko 2021eko deialdia, Gipuzkoako Lurralde Historikoko degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jardueretarako, II eranskinean zehazten dena.

Hirugarren. Kreditu atxikipen bat egitea, 290.442,00 eurokoa, BEZa barne, 1.0310.140.662.00.00.2021 aurrekontuko partidaren kontura.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete interesdunek Donostian dauden Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikular interesdunek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.»

realización, así como apoyar proyectos y actuaciones municipales de regeneración urbana, naturalización de espacios y creación de zonas verdes dentro de las estrategias locales y comarcales establecidas al respecto, con el objetivo de que, además de aumentar su capacidad de absorción de CO2, se mantenga la resiliencia del territorio, se restablezcan los procesos ecológicos degradados o dañados y se mejore su calidad ambiental y capacidad de ofrecer servicios ecosistémicos (reconexión con la naturaleza, regulación hídrica, conservación de la biodiversidad, mejora del paisaje, etc.).

De acuerdo con todo lo anterior, el informe técnico de fecha 19 de enero de 2021 justifica y determina las cuestiones técnicas de la línea subvencional que se proyecta, mediante las actuaciones y proyectos de recuperación y restauración de áreas degradadas de Gipuzkoa de forma colaborativa con los ayuntamientos, mancomunidades y sociedades mercantiles municipales y comarcales del territorio histórico, de modo que, de forma pública y a través de concurrencia competitiva, se seleccionen y ejecuten la actuaciones y proyectos considerados idóneos para cumplir los objetivos señalados.

Esta línea subvencional está recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

Dicha subvención no constituye ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, por no cumplir las condiciones establecidas en el mismo, dado que no supone un beneficio para una empresa ni favorece a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras; por tanto, queda excluida del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

Por consiguiente, a propuesta del diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

ACUERDA

Primero. Aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones en especie para la ejecución de proyectos y actuaciones de recuperación y restauración de áreas degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes y de la resiliencia del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que se detallan en el anexo I.

Segundo. Aprobar la convocatoria de 2021 de las subvenciones en especie para la ejecución de proyectos y actuaciones de recuperación y restauración de áreas degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes y de la resiliencia del Territorio Histórico de Gipuzkoa, detallada en el anexo II.

Tercero. Efectuar una retención de crédito por importe de 290.442,00 euros, IVA incluido, con cargo a la partida presupuestaria 1.0310.140.662.00.00.2021.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2021eko apirilaren 15a.—Alberto Arana Rod, idazkari teknikoa. (2564)

I ERANSKINA

Gauzazko dirulaguntzak esleitzeko oinarri arautzaileak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jardueretarako.

1. oinarria. Xedea eta eskakizunak.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 2.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, oinarri honen helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, mankomunitatei eta udal eta eskualde merkatu sozietatei gauzazko dirulaguntzak norgehiagoka bidez esleitzeko erregulazioa ezartzea, guztia ere Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko jarduketak eta proiektuak egin ditzan, aurtengo ekitaldi ekonomikoaren barruan.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak dagokion egikaritze proiektua lizitatuko du, eta bere gain hartuko du obra zuzendaritza, barruan zein kanpoan. Hala, erakunde onuradunekin lankidetzan gauzatuko ditu hautatutako leheneratze eta berroneratze proiektuak eta jarduerak, betiere kontuan harturik aurrekontu eskuragarritasuna eta oinarriotan ezarritako gainerako alderdi guztiak.

2. Xedeari dagokion eskakizuna: degradatutako eremuztat hartuko dira antropikoki eraldatutako lur, kostaldea eta ibai espazioak, elementu natural, ekologiko eta ingurumeneko kalitate ezaugarriak eta baldintzak galarazi edo galarazten dituztenak, bai berezko dituzten erabilera, funtzio eta bitartekoei dagokienez, bai ingurumenaren aldetik jasangarria den ikuspegi baten arabera eremu horietatik espero daitezkeen erabilera, funtzio eta bitartekoei dagokienez.

Aurreko hori kontuan harturik, degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta lurraldeko azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektuak eta jarduketak ezingo dute lurzoru artifizializatua areagotu –asfaltatua edo hormigoia– aurreko egoerarekin alderatuta, eta gutxienez honako baldintza hauetatik bi bete beharko dituzte:

a) Landare estalitako lurrazalaren azalera areagotzea, edo lehendik den landaretza hobetzea (alegia, espezieen aniztasuna edo aniztasun estrukturala areagotzea, espezie inbaditzaileak erretiratzea, espezie aloktonoak kendu eta autoktonoak landatzea eta, oro har, segida ekologikoaren bidean aurrera egitea).

b) Ingurunearen gaitasuna hobetzea azpiegitura berde gisa hartu ahal izateko eta/edo zerbitzu ekosistemikoak emateko, izan kontserbazioa, hornidura, erregulazioa edo ezagutza eta gozamina.

c) Fauna iragazkortasuna eta konektagarritasuna areagotzeko bide egitea, hainbat arrazoi direla eta erasanda dauden eremuetan (hala nola komunikazio azpiegiturak, hiriguneak, lurzoruaren erabilera eta abar).

d) Baldintza morfologikoak, ekologikoak, fisiografikoak eta pasaiarekin lotutakoak hobetzea, integrazioa, berraturalizazioa/berroneratzea.

e) Klima aldaketaren eraginean aurrean, lurraldearen egoitzapena eta erresilientzia lortzen laguntzea –berotegi efektu gasak husteko gaitasuna areagotuta–.

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 15 de abril de 2021.—El secretario técnico, Alberto Arana Rod. (2564)

ANEXO I

Bases reguladoras de la concesión de subvenciones en especie para la ejecución de proyectos y actuaciones de recuperación y restauración de áreas degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes y de la resiliencia del territorio de Gipuzkoa.

Base 1.ª Objeto y Requisitos.

1. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2.3 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de subvenciones en especie a través de concurrencia competitiva a los ayuntamientos, mancomunidades y sociedades mercantiles municipales y comarcas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de cara a que la Dirección General de Medio Ambiente realice y lleve a cabo dentro del ejercicio económico del año en curso, las actuaciones y proyectos de recuperación y restauración de áreas degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes y de la resiliencia del territorio que aquellos presenten.

La Dirección General de Medio Ambiente procederá a la licitación del proyecto de ejecución correspondiente y asumirá interna o externamente la dirección de obra, llevando a cabo colaborativamente con las entidades beneficiarias las actuaciones y proyectos de recuperación y restauración que hayan sido seleccionados, en función de la disponibilidad presupuestaria y de acuerdo con todo lo establecido en estas bases.

2. Requisito relativo al objeto: se consideran áreas degradadas aquellos espacios terrestres, costeros y fluviales transformados antrópicamente que han supuesto o suponen una pérdida de las características y condiciones de calidad de sus elementos ambientales, naturales y ecológicos respecto a los usos, funciones y recursos que les son propios o respecto a los que se adoptan o esperan para esas áreas desde un punto de vista ambientalmente sostenible.

De acuerdo con lo anterior, las actuaciones o proyectos de recuperación y restauración de áreas degradadas y de mejora de las infraestructuras verdes y de la resiliencia del territorio subvencionables serán aquellos que, no generando un aumento de la superficie artifizializada –asfaltada, hormigonada– respecto a la situación anterior, cumplan por lo menos con dos de las siguientes condiciones:

a) Generar un incremento de la superficie ocupada por vegetación, o bien una mejora de la vegetación existente (entendiendo como mejora el aumento de la diversidad de especies o de la diversidad estructural, la erradicación de especies invasoras, la sustitución de especies alóctonas por autóctonas y, en general, el avance en la sucesión ecológica).

b) Mejorar la capacidad del medio para considerarse como infraestructura verde y/o prestar servicios ecosistémicos, ya sea de conservación, aprovisionamiento, regulación o conocimiento y disfrute.

c) Permitir el aumento de la permeabilidad y conectividad faunística en ámbitos en los que se vean afectadas por infraestructuras de comunicación, zonas urbanas, usos del suelo, etc.

d) Implicar una mejora, integración y renaturalización/restauración de las condiciones morfológicas, ecológicas, fisiográficas y paisajísticas.

e) Contribuir a la mitigación –mediante el incremento de la capacidad de sumidero de GEI– o a la adaptación y resiliencia del territorio frente al cambio climático.

3. Diruz lagun daitekeen jardueraren zenbatekoari dago-kion eskakizuna: dirulaguntzaren xede diren obren memoria baliotsia edo proiektu teknikoa egikaritzeko aurrekontua edo kos-tu ekonomikoa ez da izango 90.000 euro baino gehiago (BEZa barne), ezta 10.000 euro baino gutxiago ere (BEZa barne).

4. Egikaritze epearekin lotutako eskakizuna: dirulaguntza-ren xede den jarduketak edo proiektuak hasi gabe egon beharko du deialdiaren urteko urtarilaren 1ean, eta urte horretako ber-tako ekitaldi ekonomikoaren barruan bukatu beharko du. Edono-la ere, esandako jarduera edo proiektu hori izan liteke proiektu luzeago baten etapa bat (lehenago hasitakoa edo geroago ama-i-tuko dena).

Alde horretatik, ikusiz gero jarduketa edo proiektu batzuk ezingo direla erabat bukatu edo egikaritu aurtengo ekitaldi eko-nomikoaren barruan (dela planteatutako kronogramagatik, dela esleitzeko eta mamitzeko behar diren epeengatik), gerta liteke proiektu horiek ezestea.

2. oinarria. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa.

1. Oinarriotako dirulaguntzak gauzako laguntza gisa har-zen dira; hori dela eta, dirulaguntza eman izanak eta erakunde onuradun izateak ez du inolako kobrantza eskubiderik ekarriko, baizik eta degradatutako eremuen leheneratze eta berroneratze jarduera hautatuetatik eskuratutako ondasunak entregatuko zaizkie erakunde onuradunei.

2. Aurrekoa kontuan izanik, oinarrian xede diren dirulagun-tzak ez dira bateragarriak xede bera duten beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, edozer administrazio edo erakunde pu-bliko zein pribatutakoak izan, degradatutako eremuak lehenera-tzeko eta berroneratzeko proiektuak osatzen dituzten dokumen-tu teknikoak diruz lagunduak izatearen kalte gabe.

3. Dirulaguntzarako kontuan hartutako baldintzetan eslei-tu ondoren egindako aldaketek, aurkeztutako proiektuaren egi-azko kostuari dagokionez, esleipen ebazpena aldaraz dezakete.

3. oinarria. Erakunde onuradunaren baldintza.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakunde hauek esku-ratu ahalko dituzte laguntzak:

- Udalak eta udal erakunde autonomoak.
- Mankomunitateak.
- Sektore publikokoak diren partaidetzako merkataritza sozietateak, izan udal esparrukoak edo eskualdekoak, baldin eta egoitza fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan bada eta haien kapital soziala erabat publikoa bada.

2. Esandako erakunde horiek, onuradun izateko, ezingo dute honako lege testu hauetan bildutako debekurik izan: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusitakoak, emakume-en eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 26. artikuluan bildutakoak, eta indarrean den gainerako legerian zehaztutakoak.

4. oinarria. Erakunde onuradunen betebeharrak.

1. Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan oro har ezartzen diren obligazioak eta oinarriotatik eratortzen direnak betetzeaz gainera, erakunde onuradunek epe barruan eta eskatutako for-mari jarraikiz aurkeztu beharko dute 5. oinarrian adierazitako do-kumentazioa. Halaber, beharrezkoak diren izapideak eta eskatu-tako baimen guztiak eskuratu beharko dituzte erabat eta zuzen gauzatu ahal izateko dirulaguntzaren xede diren leheneratze eta berroneratze proiektuak eta jarduketak, bai lanak hasi aurreko epeari dagokionez, bai proiektu eta jarduketa horiek erakunde onuradunei entregatu bitarte guztian, zeinak onarpen akta bat emanda jasoko baitira.

3. Requisito relativo al importe de la actuación subvencio-nable: el presupuesto o coste económico para la ejecución del proyecto técnico o memoria valorada de las obras que son obje-to de subvención no será superior a 90.000 euros (IVA incluido) ni inferior a 10.000 euros (IVA incluido).

4. Requisito relativo al plazo de ejecución: la actuación o proyecto objeto de subvención deberá estar sin iniciarse a fecha de 1 de enero del año de la convocatoria y deberá finalizarse dentro del ejercicio económico de ese mismo año, si bien dicha actuación o proyecto puede constituir un componente o etapa de un proyecto más largo que se haya iniciado con anterioridad o concluya posteriormente.

En este sentido, las propuestas de actuaciones o proyectos en los que se constate la imposibilidad de su completa realiza-ción o ejecución dentro del ejercicio económico del año en curso debido a causas imputables al cronograma planteado o a los plazos necesarios para su adjudicación y materialización, podrán ser objeto de denegación.

Base 2.ª Financiación de las actividades subvencionadas.

1. Las subvenciones de estas bases tienen la considera-ción de ayudas en especie, por lo que la concesión de subven-ción y la condición de entidad beneficiaria no supondrá derecho alguno de cobro, sino la entrega a las entidades beneficiarias de los bienes resultantes de las actuaciones de recuperación y restauración de áreas degradadas que resulten seleccionadas.

2. Debido a lo anterior, las subvenciones objeto de las pre-sentes bases no son compatibles con otras subvenciones o ayu-das que tengan la misma finalidad y procedan de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, sin menos cabo que la elaboración de los documentos técnicos que conformen los proyectos de recuperación y restauración de áreas degrada-das puedan haber estado subvencionados.

3. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la subvención que surjan de forma posterior a su conce-sión en lo que se refiere al coste real del proyecto presentado que puedan hacer inviable su ejecución podrá dar lugar a la mo-dificación de la resolución de concesión.

Base 3.ª Condición de entidad beneficiaria.

1. Podrán optar a las ayudas las siguientes entidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

- Ayuntamientos y organismos autónomos municipales.
- Mancomunidades.
- Sociedades mercantiles participadas por entes pertene-cientes al sector público, de ámbito municipal o comarcal, con domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y cuyo capital social sea exclusivamente de carácter público.

2. Dichas entidades no podrán estar incursoas en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el artículo 26 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, y en el resto de la normativa vi-gente.

Base 4.ª Obligaciones de las entidades beneficiarias.

1. Además de cumplir las obligaciones que con carácter general se establecen en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y las que se desprenden de las presentes bases, las en-tidades beneficiarias deberán aportar en tiempo y forma la do-cumentación referenciada en la Base 5.ª y realizar cuantos trá-mites y obtener cuantas autorizaciones y permisos sean preci-sos para permitir la correcta y total ejecución de los proyectos y actuaciones de recuperación y restauración objeto de subven-ción, tanto desde antes del inicio de los trabajos como hasta la entrega a las entidades beneficiarias de los mismos, que serán recibidos por estas a través de la emisión de un acta de acep-tación.

2. Era berean, dirulaguntzen erakunde onuradunek modu koordinatuan jardun beharko dute Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin, jarduketa egokiro gauzatzeko. Horretarako, unean unean beharrezkoak diren erabaki adostuak hartzeko behar adina gaitasun duen solaskide bat izendatuko dute.

3. Emandako dirulaguntzek erakunde onuradunaren jabeztako edo haren zati diren ondasun inbentariagarriak erostea edo haien titulartasuna izatea inplikaturiko balute, aplikatzeko izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.4 artikulua. Erakunde onuradunak ondasun horiek xede jakin batera bideratzeko izango duen denbora tartea ezingo da 5 urte baino laburragoa izan, erregistro publiko batean izena emateko modukoak diren ondasunen kasuan; epe hori bi urtekoa izango da gainerako ondasunen kasuan.

5. oinarria. Epeak eta eskabideak aurkeztea.

1. Dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epea deialdian egongo da adierazita, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hasiko da zenbatzen.

2. Eskabideak Internet bidez eskatuko dira nahitaez, hala xedatzen baitu, batetik, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak (Foru Administrazioan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena) eta, bestetik, otsailaren 25eko IOH-028/16 Foru Aginduak (Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko dirulaguntzen espedienteen izapide zehatzak baliabide elektronikoen bidez egiteko betekizuna arautzen duena; Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 41. zenbakia, 2016ko martxoaren 2koa).

Eskabideak Internet bidez aurkezteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora jo beharko da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>); bertatik sartzen da dirulaguntzen atarira, eta apropos prestatutako formulario espezifiko bat bete beharko da, guztia ere irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako sinadura elektronikoa edo gako operatiboa baliatuz.

3. Erakunde bakoitzak gehienez ere bi eskabide aurkeztu ahaliko ditu, eta honako dokumentazio hau ere gaineratu beharko da, aplikazio informatikoan eranskin gisa txertaturik:

a) Egikaritze proiektu teknikoaren ale bat edo obren memoria balioetsi bat, aurrekontua unitateka eta kapituluka zehazturik, eta dirulaguntzaren xede den jarduera erabat egiteko kronograma, 2. ataleko 1. oinarrian zehaztutako egokitasuna justifikaturik eta eskumena duen teknikari batek sinatuta.

b) Lurren jabetza edo eskuragarritasuna egiaztatzen duen agiria, edo, hala badagokio, administrazio baimen edo esleipen zehatzena, guztia ere lehenertzeko, berroneratzeko eta hobetzeko jarduerak gauzatu ahal izateko. Halaber, adieraziko da bateragarriak direla dagokion udalerriko plangintza eta araudian xedatuta dagoena.

c) Proiektua edo jarduera onartzeko udal akordioa, edo mankomunitatearen edo sozietate publikoaren gobernu organoaren akordioa, dirulaguntza eskatzen duen inbertsioaren zenbateko osoa adieraziz egikaritze teknikoko proiektuarekin edo obren memoria balioetsiarekin bat eginez; halaber, adierazi beharko da onartzen duela lan horiek Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzea.

d) Erantzukizunpeko adierazpen bat, adierazten duena erakunde horiek, onuradun izateko, ez dutela honako lege testu hauetan bildutako debekurik: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusitakoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 26. artikuluan bildutakoak, eta indarrean den gainerako legerian zehaztutakoak. Adierazpen horretan, halaber, adieraziko dute egunean dituztela

2. Asimismo, las entidades beneficiarias de las subvenciones deberán actuar coordinadamente con la Dirección General de Medio Ambiente para el buen fin de la actuación. A tal efecto, designarán una persona interlocutora con capacidad suficiente para adoptar las decisiones consensuadas que sean necesarias en cada momento.

3. En el caso de que las subvenciones concedidas impliquen la adquisición o titularidad de bienes inventariables que formen parte o sean propiedad de la entidad beneficiaria, será de aplicación lo establecido en el artículo 30.4 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. El periodo durante el cual la entidad beneficiaria deberá destinar tales bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención no podrá ser inferior a 5 años en caso de bienes inscribibles en un registro público, ni a 2 años para el resto de bienes.

Base 5.^a Plazos y presentación de solicitudes.

1. El plazo de presentación de las solicitudes de subvenciones será el indicado en la convocatoria y empezará a contar a partir del día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

2. Las solicitudes se presentarán obligatoriamente vía Internet, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, y en la Orden Foral IOH-028/16, de 25 de febrero, por la que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 41, de 2 de marzo de 2016).

La presentación vía Internet de solicitudes se realizará a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>), en la que se accederá al portal de subvenciones y se cumplimentará el formulario específico habilitado a tal efecto, utilizando la firma electrónica o la clave operativa contempladas en citado Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre.

3. Cada entidad podrá presentar un máximo de dos solicitudes, que irán acompañadas de la siguiente documentación que se incorporará en la aplicación informática como documentos anexos:

